



## **Memoria: "Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren 2018" estatistikaren landa-lanak egiteko kontratua.**

### **1.- Sarrera**

Kulturaren Euskal Behatokia 2006. urtean sortu zen Kulturaren Euskal Planaren baitan, azken hori Gobernu Kontseiluak 2004ko irailaren 21eko bilkuran onetsia. Kulturaren Euskal Planak, bere ardatz estrategikoetako jardun-lerro lehenetsi gisa, Euskal Kultura Sistema osoa informazioan eta ezagutzan oinarrituta egituratu eta elikatuko duen erakunde bat sortzea xedatu zuen, Kulturaren Euskal Behatokia, hain zuzen.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzaren zerbitzu espezifikoa da Kulturaren Euskal Behatokia, EAEn Kulturaren alorreko informazio- eta ikerketa-zentro gisako funtzioa duena. Behatoki baten funtzioa da informazio baliagarria lortzea eta aztertzea, bai kultura-sektoreei bai kulturaren alorreko estrategia politikoak definitzeko ardura dutenei orientazioa ematea helburutzat hartuta.

Bere misioarekin bat etorritik eta informazio-sistema jarduera-esparru hartuta, Kulturaren Euskal Behatokiak, 2019ko ekitaldirako, "Finantzaketa eta gastu publikoa Kulturaren" estatistika-operazioaren 6. edizioa burutu nahi du. Estatistika hau indarrean dagoen Euskal Estatistika Planean txertatuta dago.

### **2.- Kontratuaren xedea eta justifikazioa**

Kontratuaren xedea, beraz, Kulturaren Euskal Behatokiaren baitako "Gastu eta Finantzaketa Publikoa Kulturaren" estatistika gauzatzeko 2019ko landa-lana egitea da.

Kulturaren Euskal Behatokiaren helburuen artean dago "Kultura eta komunikazioko estatistikak partekatze sistemak diseinatzea eta garatzea, estatistikak beharrezkoak baitira kultura, komunikazio, gizarte eta administrazioko eragileentzat kulturaren arloan erabakiak hartzeko eta kulturaren garaipenaren jarraipena egiteko".

Alde batetik, "Finantzaketa eta Gastu publikoa kulturaren" estatistikarekin lotutako informazioa jasotzeko, helburu nagusia izanik EAEko udalen, Foru



Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren finantzaketari eta gastu publikoari atxikitako informazioa jasotzea, aztertzea eta lantzea, Kulturaren Euskal Behatokiak abiatutako ikerlanaren ikuspuntutik.

Eragiketa honen xede nagusia da Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek kulturaren egiten dituzten diru-ekarpen eta inbertsioen neurri ekonomiko garrantzitsuenen ikuspegi eskuratzea eta EAEn kulturaren egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra, osoa eta araztua ematea.

Horretarako, erakundearen arteko finantza-fluxuak aztertu behar dira, eta kontabilitate bikoitzak saihestu. Hartara, kulturaren egindako gastuak sektoreko agenteen artean (erakunde autonomoak, instituzioak, enpresa publikoak eta abar) eta euskal herritarren artean eta gizartearen duen garrantzia eta eragina neurtu ahal izango da.

Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen da estatistika gauzatzeko landa lana egitea horrela egitea:

Errola-bidez honako taldeetan: Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak; 3 hiriburuak; 20.000 biztanletik gorako 16 udal; 5.000 eta 20.000 biztanle bitarteko 52 udal; EAEko administrazio baten edo hainbaten mendekoak diren, edo horietan %100eko partaidetza duten kultura arloko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio eta partaidetza publikodun kultur erakundeak baldin eta, 2018an, administrazioaren aldetik 500.000 eurotik gorako transferentziak jaso bazituzten.

Lagin bidez: 5.000 biztanletik beherako udaletan, 80 udaletan gutxienez eta gehienez ere 100 udaletan. Lagina kalkulatzeko Kulturaren euskal behatokiak ezarritako irizpideak jarraituko dira.

Informazioa EAEn eremu geografikoan bilduko da.

Datuen erreferentzia-urtea 2018 izango da.

### **3.- Loteen beharra**

Ez dagokio. Kontratatu nahi den zerbitzua osatzen duten lanek estu-esturik daude lotuta, elkarrekiko osagarriak baitira, eta beharrezkoa da batera eta era integratuan burutzea. Ikuspegi tekniko batetik kontratuaren objektua diren prestazioak independente burutuz gero exekuzio egokia zailduko litzateke, izan ere, eragiketa estatistikoa hau unitarioa eta zatiezina da. Kontratuko objektuaren izaera dela-eta -eragiketa bakarrean



administrazioaren hiru maila sartuta daude eta gastuaren kontsolidazio prozesua egin behar da- ezinbestekoa den koordinazioa eta koherentzia kaltetuta gera litezke kontratua loteka zatituz gero eta, baita ere, exekuzioa esleipendun diferenteen esku geratuz gero.

#### **4.- Kontratatu beharra**

Eragiketen izaera eta berezitasuna aintzat hartuta, aipatutako estatistika-eragiketa horiek gauzatzeko behar diren lanak ezin ditu egin Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak bere baliabideekin.

Kontratu honen helburua da Administrazioaren ohiko jardueratik kanpo dauden lanak burutzea, eta horiek gauzatzeak ez dakar esleipendun enprekin loturiko pertsonen Administrazioaren berezko pertsonalak normalean egiten dituen antzerako eginkizunak betetzea, Gobernu Batzordeak 2014ko apirilaren 29an hartutako erabakiaren bidez onartu zituen Zerbitzuak kontratatze jardunbide egokiei buruzko jarraibideekin bat. Aipatutako Instrukzioen seigarrenean, propio azaltzen da kontratatu daitezkeen zerbitzuetan "Merkatuen ikerketa eta ikerketa estatistikoen zerbitzuak", zeina bete-betean bat datorren kontratu honekin.

Halaber, operazioak amaitu ondoren, Kulturaren Euskal Behatokiak prozesatu eta zabalduko ditu egindako lanak, hau da, operazio estatistikoa eta adierazleak.

Beraz, lan horiek EUSTATEkin elkarlanean lantzen den Kulturaren Euskal Esparru Estatistikoaren testuinguruan kontratu beharra ikusi da, indarren dagoen Estatistikaren Euskal Planaren barruko estatistika-eragiketa gisa.

#### **5.- Esleipen-prozedura**

9/2017 Legearen 156 artikulua betez, -azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena (aurrerantzean SPKL)-, prozedura irekia egingo da, interesa duen orok proposamen bat aurkeztu ahal izan dezan.

Halaber, SPKLren 145 artikuluari jarraikiz, balorazio-irizpide bat baino gehiago ezarri dira, esleipena zehazten duen faktore bakarra prezioa izan ez dadin



Ez da zentro berezientzako edo txertatze-enpresentzako kontratua, eta haren gauzatzea ez dago txertatuta enplegua sustatzeko programen esparruan.

## **6.- Kontratazio-organoa**

Kontratazio-organoa Kulturako sailburuordea da, hala jasotzen baitu 3.2 h) artikuluan apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuak, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak. Dekretu horren bidez, kontratazio-eskumenak ematen zaizkie organoei, esleituak dituzten jarduera-eremuei dagozkien alorretan (2017ko apirilaren 21eko EHAA, 76. zk.).

## **7.- Prestazioaren sailkapena**

SPKLren 17. artikulua araberan, zerbitzu-kontratua da.

## **8.- Erreferentzia-zenbakia (CPV)**

Dagokion CPV zenbakia 79311400-1 da, "Ikerketa ekonomikorako zerbitzuak".

## **9.- Erreferentzia-zenbakia (CPA)**

Dagokion CPA kodea 72.20.11 da, "Ekonomia eta enpresa-zientzien ikerketarako eta garapen esperimentalerako zerbitzuak".

## **10.- Kontratuaren beste espezifikotasun batzuk**

Enpresak konpromisoa hartu behar du azterketa egoki bideratzeko behar diren giza baliabide eta baliabide material guztiak jartzeko; halaber, enpresari dagokio harreman juridikoak izatea operazioa garatzeko behar den lantaldeko pertsonekin. Dena dela, ez Kulturaren Euskal Behatokiak, ez Kultura eta Hizkuntza Politika ez dute inolako loturarik langile horiekin (ez lan-harremanik, ez kontraturik, ez harreman funtzionalik, ez bestelako loturarik), ez kontratua indarrean dagoen bitartean, ez amaitu ondoren.



Administrazioaren eta enpresen arteko harreman orokorrak administrazio-baldintzen orrian xedatutakoaren arabera gauzatuko dira.

### 11.- Lanen jarraipena

Lanen jarraipena Kulturaren Euskal Behatokiari dagokio, zeina enpresa esleipendunarekin batera adostutako prozedura eta egutegiaren arabera gauzatuko den, beti ere, Kulturaren Euskal Behatokiaren gidaritzapean.

Horiek horrela, Kulturaren Euskal Behatokiak bere gain hartuko du enpresa esleipendunak egingo dituen lan guztien koordinazioa eta jarraipena. Horren helburua da lan-prozesuen koherentzia zaintzea, gauzatu beharreko zereginen eraginkortasuna, efizientzia eta kalitate-maila irizpidetzat hartuta.

Halaber, enpresa esleipenduna Kulturaren Euskal Behatokiaren esanetara egongo da, emandako informazioa argitzeko zein osatzeko, Kulturaren Euskal Behatokiak egoki iritzi bezala.

### 12.- Gauzatzeko epea

Operazioa aurten egitea eta urte-amaiera baino lehen emaitzak lortzea helburu hartuta, **kontratazioa gauzatzeko epea 6 hilabetekoa** izatea erabaki da, kontratua sinatutako egunetik kontatzen hasita.

### 13.- Prezioa eta ordaintzeko modua zehaztea

Lizitazioaren gehieneko zenbatekoa 94.380,00 eurokoa izatea erabaki da (BEZa barne), 78.000,00 euro, gehi 16.380,00 euroko BEZa (%21).

Lizitazioaren zenbatekoa zehazte aldera erabilitako kostuak eta gastuak honakoak dira:

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua		94.380,00
Balio estimatua		78.000,00
Langile gastuak	50.000,00	
Zeharkako gastuak	18.000,00	
Enpresa-onura	10.000,00	
BEZ (21%)		16.380,00
KOSTUA (BEZa barne)		94.380,00



Kalkulu sistema:

Lizitazio aurrekontua (BEZa gabe)	78.000,00
Aurreikusitako aldaketen zenbateko (BEZa gabe)	Ez dagokio
Lizitatzailari ordaintzeko sarien edo primen zenbatekoa (BEZa gabe)	Ez dagokio
Balizko aukeren zenbatekoa (BEZa gabe)	Ez dagokio
Luzapena (BEZa gabe)	Ez dagokio
<b>BALIO ESTIMATUA GUZTIRA</b>	<b>78.000,00</b>

Kopuru hori aurrekontu-esleipen honi egokituko zaio:

19.0.1.10.12.0122.1.238.99.45136.013/G, eta hiru zatitan egingo da ordainketa:

- % 30 dagokion txosten metodologikoa aurkeztean.
- % 40 landa lanari dagozkion data baseak aurkeztean.
- % 30 kontratuaren xede diren lanak amaituta eta emanda.

EPEA	ORDAINKETA	BEZ gabe	BEZ	GUZTIRA
Lehena	30%	23.400,00	4.914,00	28.314,00
Bigarrena	40%	31.200,00	6.552,00	37.752,00
Hirugarrena	30%	23.400,00	4.914,00	28.314,00
Guztira	100%	78.000,00	16.380,00	94.380,00

**BALIO ESTIMATUA = 78.000,00€**

Kasu guztietan, dagokion faktura, esleipenaren portzentajeen arabera, aurkeztuta eta egindako lan guztiak Administrazioak onetsita.

Ez da aurreikusten konturako ordainketarik egitea.



## 14.- Kaudimen-irizpideak

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko, kontratu mota dela-eta eta egin beharreko zerbitzuaren izaera eta edukia dela-eta, SPKLaren 87. eta 90. artikuluetan xedatutakoarekin bat, lehiatzen diren enpresei beren kaudimen teknikoa eta finantzarioa erakuts dezatela exijitzea erabakia da, honela:

### **Kaudimen ekonomikoa:**

Urteko negozio-bolumena, azken hiru urteko bolumen handieneko urteko zenbatekoa, 115.000 eurokoa edo handiagoa izatea.

Zifra hori, urteko gutxieneko bolumena, esleipendunak prestazioak betetzeko gaitasuna bermatze aldera estimatu da. Edonola ere, ez da gainditzen SPKLaren 87.a a) artikulua ezartzen duena, hau da, ezartzen den urteko gutxieneko negozio bolumena ez izatea kontratuaren balio estimatuaren halako 1,5 baino altuagoa.

Halaber, 87.4 artikuluan ezarritakoa betetzen da, izan ere, eskatutako kaudimena kontratuaren objektuarekiko proportzionala da. Kasu honetan objektuarekin lotuta dago eta egokia da, eta ez du inolaz ere enpresa txiki eta ertainen parte hartzea oztopatzen urteko negozio bolumenaren kopuruari begira.

Onartutako eta Merkataritza Erregistroan lagatako kontuen bidez frogatuko da datu hori, enpresariak erregistro horretan inskribaturik egonez gero, eta, bestela, inskribaturik egon behar duen erregistro ofizialean lagatako kontuen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribaturik ez dauden enpresariak urteko negozio-bolumena Merkataritza Erregistro berak legeztatutako enpresariaren inbentario eta urteko kontu-liburuen bidez egiaztatuko dute.

### **Kaudimen teknikoa:**

Aintzat hartuta egin beharreko lanen edukia eta dimentsio praktikoa, horiek gauzatzeko kulturaren alorrean ageriko eskarmentua duen enpresa nahi da kontratatu, zeinaren jarduera profesionala kontratuaren xedearekin lotua baita. Hori dela eta, SPKLaren 90.1a) artikuluari dagokionez, honela frogatu beharko da kaudimen teknikoa:



- Gehienez ere azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, kontratuaren objektua diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu eta lanena. Zerrenda horretan, zenbatekoa, data eta haien hartzaile publikoa zein pribatua aipatuko dira. Gaitasun-maila egoki bat bermatzeko beharrezkoa denean, botere adjudikatzailleek adierazi ahalko dute kontuan hartuko direla hiru urte lehenago arte egindako zerbitzuei buruzko frogak. Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek eskatzen dutenean, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzu edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark egindako ziurtagiriaren bidez eta, halakorik ezean, enpresaburuaren deklarazio baten bidez eta, horrekin batera, bere esku dituen eta prestazioa eman izana egiaztatzen duten agirien bidez; behar izanez gero, agintaritza eskudunak zuzenean emango dio ziurtagiri horien berri kontratazio-organoari.

Gutxieneko betekizuna izango da bolumen handieneko urteko zenbatekoa, gutxienez, 70.000 eurokoa izatea.

Horren ordez, kaudimen ekonomiko eta finantzario zein tekniko edo profesionala badago egiaztatzerik hurrengo sailkapena aurkeztuta:

Taldea: L)	Azpitaldea: 3	Kategoria: A
Grupo: L)	Subgrupo: 3	Categoría: 1

Kontratista sortu berria den enpresa izanez gero (hala iritzita bost urte baino gutxiagoko antzintasuna dutenak) kaudimen tekniko egiaztatuko da pertsonal tekniko edota unitate teknikoak (enpresaren parte izan ala ez) adierazita, batez ere, kalitate kontrolaren ardura dutenak adierazita. Horretarako, enpresaren gutxieneko profila izango da, teknikarien artean, gutxienez goi mailako titulatu bat izatea, zeinak Gradua (edo antzekoa) egiaztatuko duen Estatistika edota Ekonomian, eta beste goi mailako titulatu bat Gradua (edo antzekoa) Soziologian egiaztatzen duena.

## 15.- Lan-programa

Ez da lan-programarik eskatzen.





## **16.- "C" gutun-azalean sartu beharreko agiriak. Irizpide subjektiboak**

Aurkeztuko diren proposamen teknikoaren balorazio egokia egitea bideratzearen, esleitzeko irizpideak eta aurreikusitako haztatzeak aintzat hartuta, lizitatzaileek "C" gutun-azalean sartu behar dituzte 18. ataleko 1. puntuko esleipen-irizpidearen arabera (balio-irizpenean oinarritutako irizpidea) baloratzen dena egiaztatzeko behar diren agiri guztiak, ahalik eta modu argienean eta zehatzenean. Zehazki, honako hauek aurkeztu behar dira:

1. Emango den prestazioaren txosten deskribatzailea, proiektua ahalik eta gehien zehaztuz. Alde horretatik, dokumentazioak honako alderdiak jasoko ditu, gutxienez: lan-egitasmoaren deskribapen xehea; emaitzak, proiektuaren kronograma; informazioa egiaztatzeko eta arazteko mekanismoak eta lanen kalitatea bermatzeko prozeduren deskribapena.
2. Esleitzeari begira, eta beren proposamena hobeto ulertzeko, haien iritziz interesgarriak diren agiri osagarri guztiak.

## **17.- "B" gutun-azalean sartu beharreko agiriak. Irizpide objektiboak**

1. Proposamen ekonomikoa.
2. Galde-sorta bete eta onartuen gutxieneko portzentaje proposamena.
3. In situ egindako galde-sorten portzentaje proposamena.
4. Lagin bidez egin beharreko atalerako (5000 biztanle baino gutxiagoko udalak) tamaina proposamena.

## **18.- Esleitzeko irizpideak**

Proposamenak baloratzeko unean prezioa ez da esleitzeko faktore erabakigarri bakartzat hartuko; aitzitik, aurkeztu den eskaintzaren kalitate



teknikoa baloratzeari ere garrantzia emango zaio, egin beharreko zerbitzuaren elementu esanguratsua denez.

Esleitzeko irizpideen xedea da eskaintza egokiena zein den erabakitzea, alegia, kontratazioaren bitartez ase nahi den beharra egokien aseko duena. Hori dela eta, irizpide matematikoez bestelakoak ere aintzat hartuko dira inoiz, kontratazioaren bidez lortu nahi diren helburuak lortzearren.

Kontratu honek hurrengo helburua dauka:

- Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren eragiketa estatistikoaren xede nagusia da Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioek kulturaren egiten dituzten diru-ekarpen eta inbertsioen neurri ekonomiko garrantzitsuenen ikuspegia eskuratzea eta EAEn kulturaren egiten den gastu publikoaren ikuspegi orokorra, osoa eta araztua ematea.

Helburu hori erdiesteak eta hain korapilatsua den bere izaerak ere beharrezko egiten dute berme-mekanismoak izatea. Horiei irizpide objektiboak zein kualitatiboak erabiliz baino ezin heldu.

Eskaintzen kalitate teknikoa balio-judizioen bidez baloratzea planteatu da, hiru irizpide hauei jarraikiz:

1. Ikuspegi metodologikoa, zereginen egokitasuna eta lanerako baliabideak eta organigrama. Informazio iturri bakoitzari bere aldetik heldu behar zaionez eta panel bakoitzeko panelista guztiak atxikitzeke erronka aintzat hartuta, ezinbestekoa da metodologia misto bati txukun eta eraginkor heltzea, planteamendu kualitatibo eta kuantitatiboak dituen, proaktibotasuna goiburua eta kontratazioaren helburuak beteko direla bermatzearren.
2. Proposamenak duen zehaztasun maila. Aurkeztutako metodologia oinarri, proiektuak duen irismena eta zereginak zehatz-mehatz adierazi behar dira.
3. Lanaren kalitatea bermatzeko prozedurak eta mekanismoak. Zereginen kalitatea bermatzeko duten parametroak zehaztu behar dira. Datuen, prozesuen kudeaketaren eta sortuko diren emaitzen kalitatea bermatu, horien koherentzia, jarraipena eta egiaztapena zainduz.



## 1.- Irizpide kualitatiboak:

### A.- Eskaintzaren kalitate teknikoa (0-49 puntu)

Aurreikusitako zereginen oinarri metodologikoak eta egokitasuna aintzat hartuko dira, oro har, baita oinarri teknikoen orrian eskatutako baldintzak ere.

Irizpide horien balorazioa egiteko, puntuazio hauek kontuan hartuko dira:

1. Metodologia eta lan urratsak (0-15 puntu).
2. Proiektuak duen irismena (0-8 puntu).
3. Planifikazioa eta lan-egutegia (0-5 puntu).
4. Zereginen zehaztasun maila (0-7 puntu).
5. Datuen jarraipen- eta arazketa-mekanismoak (0-7 puntu).
6. Egitekoen eta sortu beharreko emaitzen kalitatea bermatzeko prozedurak (0-7 puntu).

## 2.- Irizpide objektiboak (51 puntu):

### 1. Lotea – Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren.

Irizpide objektiboak erabiliz ondorengoak baloratuko dira:

- A. Eskaintza ekonomikoa. Interes publikoarekin bat eskaintza ekonomikorik onuragarriena hartuko da aintzat.
- B. "Finantzaketa eta Gastu publikoa kulturaren" estatistikan galde-sorta bete eta onartuen kopurua. Edozein estatistikak behar-beharrezkoak ditu betetako eta onartutako gutxieneko galdesorta kopuru bat. Kopuru hau zenbat eta handiago izan estatistikaren adierazgarritasuna eta kalitatea hobea da. Estatistika honetan erroldan oinarritutako taldeetan, galde-sorta bete eta onartuen gutxieneko ehunekoa % 90ean ezarri da aztertu beharreko talde bakoitzean.
- C. *In situ* betetako galde-sortak "Finantzaketa eta Gastu publikoa kulturaren" estatistikan. Landa lana kasurik gehienetan bitarteko elektronikoa eta telefono bidezko aholkularitzarekin egin daiteke. Hala



ere, eragileen perfil aniztasunak eta galdesortak duen zailtasun mailak, zenbait kasutan, informazio iturrien egoitzetara eskatzen du. Aurreko edizioek erakutsi digutena aintzat hartuz, esan dezakegu iturriok dituzten beharrak eragileen ehuneko hamarrarekin aseta geratzen direla.

- D. Laginaren tamaina. 5000 biztanle baino gutxiago duten udalekin lagin batekin lan egingo da. Laginaren tamaina erabakitzerakoan kontuan izan behar da adierazgarritasuna kostu ekonomikoaren aldean. Kasu honetan, gutxieneko adierazgarritasun maila bat izateko laginak 50 udal izan behar ditu, optimoa izateko 80 eta 100tik gora ez dago gehiegizko kostea justifikatzen duen arrazoirik.

#### A.- Eskaintza ekonomikoa (0-25 puntu)

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa formula honekin kalkulatu da:

$$P = \frac{25 * Gut}{Esk}$$

*P = Puntuazioa*

*Gut = Gutxieneko eskaintza BEZ-ik gabe.*

*Esk = Ebaluatzen den lizitzailearen eskaintza BEZ-ik gabe.*

Prestazioaren izaera kontuan hartuta, egoki irizten da eskaintza ekonomikoa jaisteko irizpideak jartzea. Ildo horretan, ez-normaltzat edo proportziorik gabekotzat joko dira lizitzaileen aurrekontuen batez besteko aritmetikoa baino %15 gutxiagoko prezioak.

#### B.- Galde-sorta bete eta onartuen kopurua Finantzaketa eta Gastu publikoa kulturaren estatistikan (0-10 puntu)

Eskaintza bat baloratuko bada, aztergai-talde bakoitzaren errolda taldeen galde-sorten % 90 baino gehiago bete eta onartu beharko dira. Formula honen bitartez baloratuko dira eskaintzak:

$$P = 10 * \frac{(Esk - 90)}{10}$$



$P$  = puntuazioa

$Esk$  = baloratzen ari den eskaintzak eskainitako galde-sorta bete eta onartuen portzentajea, errolda taldeentzako.

### C.- *In situ* betetako galde-sortak "Finantzaketa eta Gastu publikoa kulturean" estatistikan. (0-6 puntu)

Eskaintza bat baloratuko bada, *in situ* egindako galde-sorten portzentajea ez da % 10 baina handiagoa izango. Informazio-iturrien egoitzan bertan *in situ* betetako galde-sorten portzentajeari zer puntuazio dagokion kalkulatzeko formula honi jarraituko zaio:

$$P = \frac{6 * Esk}{Geh}$$

$P$  = puntuazioa

$Geh$  = Eskainitako gehienezko portzentajea

$Esk$  = Baloratzen ari den eskaintzaren portzentajea

### D.- Lagina. (0-10 puntu)

50 eta 100 arteko lagin tamainak baino ez dira kontuan hartuko. Puntuazioa hurrengo formularen bidez emango da.

$$P = \begin{cases} 0 & lag < 50 \\ 8 * \frac{lag - 50}{30} & 50 \leq lag < 80 \\ 8 + 2 * \left( \frac{lag - 80}{20} \right) & 80 \leq lag \leq 100 \\ 0 & lag > 100 \end{cases}$$

$P$  = puntuazioa

$lag$  = eskaintzaren lagin tamaina.

### \*BALORAZIO-IRIZPIDEEN ZURIBIDEA

Administrazio publikoan kontratuak esleitzeko arau orokorretan, 9/2017 Legearen 131.2 artikulua dio esleipena, normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako adjudikazio-irizpide ugari erabiliz adjudikatuko direla kontratuak. Kontratu honetan eta 145.2 artikulua jarraiki, aipatutako printzipioa errespetatuz lehen aurkeztutako irizpide kualitatiboak eta objektiboak erabiliko dira.



Irizpide horiek aukeratzeko zera hartu da kontuan:

- Irizpide kualitatiboek dagokienez, kontratuko objektuarekin lotutako irizpideak izatea (prestazioei eta exekuzio baldintzei baitagokie, zeintzuk oinarri-teknikoen pleguan adierazitakoaren arabera gauzatu behar diren), metodologia eta lana faseak lehenetsiz, eginkizun hauek izanik proposamenaren ardatza.
- Irizpide objektiboek dagokienez, aurrekoaz gain, proposamen hoberena zein den erabakitzeke lehenetsi dira hainbat formula. Horrela:
  - Eskaintza ekonomikoa: eskaintza hoberenarekiko balorazio proportzionalaren formula erabiltzen da.
  - Galdesorta beteak eta onartuak: baloratzen da galdesorta bete eta onartuen %100era iristeko ahalegin lineala.
  - Galdesorta *in situ*: eskaintza hoberenarekiko balorazio proportzionalaren formula.
  - Laginaren tamaina: 80 izanik tamaina optimoa, 8 puntu lineal ematen zaio tamaina horretaraino heltzeko egindako ahaleginari, bi puntu gordez proposatu litezkeen beste alternatibentzat.

#### **19.- Sekretu estatistikoarekin eta datu pertsonalen konfidentziasunarekin lotutako betebeharrak.**

Enpresak eskueran izan ditzakeen datuak edo inkesta honetan eskura ditzakeen datuak sekretu estatistikoaren betebeharraren babespean daude lege eta arau hauen arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko apirilaren 23ko 4/1986 Estatistika Legea; Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikotik aplikagarriak diren xedapenak, eta aipatu Legearen garapen Erregelamendua (abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua.

Bai enpresa esleipendunak, bai kontratu honetan zuzenean edo zeharka parte hartuko duten pertsonak, sekretu estatistikopean eta bertatik eratorritako araudipean egongo dira.

Enpresa esleipendunak beharrezko antolakuntza neurriak eta neurri teknikoak hartuko ditu, datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta datuok aldatu, galdu, edo baimendu gabe erabiltzen edo zabaltzen direla saihesteko, bai eta baldintza teknikoen orrian jasotako neurriak ere.



## **20.- Lanak operazio estatistikotzat jotzea**

“Finantzaketa eta Gastu publikoa kulturean” operazioa egiteko kontratatutako lanak indarrean den Euskal Estatistika Planean txertatutako operazio estatistiko bati dagozkie.

## **21.- Azpikontratazioa**

Azpikontratazioa debekatuta dago. Eginkizun guztien izaera kritikoagatik ez da onartzen. Azpikontratazioak ikerketaren fidagarritasuna konprometitu lezake, emaitzak desitxuratu eta, azken batean, kalitatean galera ekarri.

## **22.- Behin-behineko bermea**

Ez da eskatzen behin-behineko bermerik.

## **23.- Behin-betiko bermea**

Bai. Esleipen prezioaren %5a BEZa kanpo

## **24.- Prezioen berrikustea**

Egin beharreko lanen izaera eta edukia direla eta, ez da egokitzat jotzen SPKLren 103. artikuluan adierazita dagoen prezioen berrikuspenaren kasua onartzea kontratu honetan. Litzazioaren oinarri den aurrekontuan dagoeneko kontuan hartuak izan dira beharrezko neurrian giza-baliabide eta baliabide teknikoaren kostuak, enpresa irabaziak, KPI-k izan ditzakeen igoerak eta kontratuaren iraupenean eman litezkeen osterantzeko kontuak. Era honetan, esleipen honen ondorioz esleipendunaren kalteko izan litekeen arrazoirik gabeko prezio jaitsierarik gerta ez dadin

## **25.- Berariazko baldintzen orrian aintzat hartzeko beste elementu batzuk**

Kontratatutako lana egitean eta aurkeztean, genero-ikuspegia gehitu beharko du, eta hizkuntzan eta irudietan diskriminazio sexistaren elementurik ez dagoela bermatuko du, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritakoari jarraiki.



Kontratatistak operazio estatistikoa aipatutako legearen 16. artikuluan ezarritakora egokitu beharko du.

## **26.- Lanen zuzendaritza**

Kultura eta Hizkuntza Politika eskumena izango du agindutako lanak zuzentzeko, eta kontratazio-aldian sor daitezkeen gorabeherak bideratzeaz arduratuko da.

## **27.- Prestazioen berme-epea**

Kontratuaren xedearen izaera kontuan hartuta, ez da berme-eperik eskatzen, izan ere, esleipendunaren erantzukizuna kontratua amaitutakoan agortzen baita.

## **28.- Hartzeko epea**

Bai.

Lehendabiziko epea: hilabetekoa, kontratatutako lanak burutzeko txosten metodologikoa eta jarduera planaren proposamena aurkezten den egunetik kontatzen hasita.

Bigarren epea: hilabetekoa, inkestaren emaitzen datu-basea, Acces eta SPSS eta datuen ustiaketa aurkezten diren egunetik kontatzen hasita.

Hirugarren epea: hilabetekoa, kontratuaren objektuaren lanen amaierako txostenak aurkezten diren egunetik kontatzen hasita.

## **29.- Kontratuaren luzapena**

Ez da halakorik izango.





### **30.- Ez-betetze partzialak**

Ez da egokia ez-betetze partzialen kasuak ezartzea kontratua erabakitzekeo helburuetarako.

### **31.- Aurrekontuko diru-izendapena**

Kreditu egokia eta nahikoa dago aurrekontu-sail honetan:

19.0.1.10.12.0122.1.238.99.45136.013/G.

### **32.- Prestazioak eta aurkezteko lekua**

Kontratu honen ondorioz enpresa esleipendunak aurkeztu beharreko dokumentu guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan aurkeztu behar ditu, bai paperean, bai euskarri informatikoan.

Kontratututako erakundeak ezin izango du kontratatutako lanaren daturik erabili, ez berarentzat ez hirugarrenei emateko, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren baimenik gabe. Horren haritik, esleipendunak aurkezpenaren xede diren elementuak entregatzen dituenetik, aitortu eta ziurtatu behar du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eskatuz gero, titulartasuna Administrazioari dagokiola, aipatutako eremuan.

Kontratazioarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskuratzen ditu, halaber, eratzen diren datu-baseen ustiapen ekonomikoak eragin ditzakeen jabetza intelektualaren eskubideak, baita prestazioan sortutako dokumentuek eta elementuek eragin ditzaketenak ere (elementu bereizgarriak barne hartuta). Eskubide horiek dira erreproduktioari, banaketari, komunikazio publikoari, eraldaketari eta abarri dagozkienak eta ustiapen ekonomikoa ekar lezaketenak, mundu guztian, hizkuntza guztietan eta prozedura guztietan, legediak ezarritako data eta epeetan, jabari publikoak izan arte, jabetza intelektualari buruzko araudiak xedatutako baldintzak eta mugak aintzat hartuta.

Dokumentu guztiak eta gainerako elementuak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eskuetan jarriko dira, helbide honetan: Kultura Sailburuordetza. Lakua I eraikina, 2. solairua. Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
Kulturako Sailburuordetza  
Kultura Sustatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
Viceconsejería de Cultura  
Dirección de Promoción de la Cultural

Kontratua gauzatzeko aldian, prestazioa zuzena dela egiaztatzeko eskubidea du Administrazioak; halaber, prestazio hori baldintza administratiboen orrian eta esleipendunaren eskaintzan xedatutakoarekin bat datorrela egiaztatzeko eskubidea du. Alde horretatik, sortzen diren arazoak konpondu edo egokitu beharko ditu esleipendunak, adierazten zaion epearen barruan.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko urtarrilaren 22a.

**O. E. Aitziber Atorrasagasti**  
**Kultura Sustatzeko zuzendaria**  
**Kultura eta Hizkuntza Politika**